


Zahartzen utzi



MAIALEN
BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Merkatuan edo zer eros daitekeen mundu zoragarri honetan (umeak ere bai, alajaina), bada zimurren kontrako krema bat 26 urtetik gorakoentzat. Ikusiko zenuen iragarkia agian. Eta gogora etorriko zitzaizun, beharbada, zer esan zuen behin Arantxa Urretabizkaiak Goizalde Landabasoren galderei erantzunez 111 Akademiaren Kilkerren Soka egitasmoaren barruan: “Uste dut gizarte honek zahartzaroa gorroto duela, baina nik, ez. Are gehiago, patetikoa iruditzen zait itxura gazteagoa izatearekin daukagun obsesioa. Zuk edozeini esaten diozu gazteago dirudiela eta sekulako ilusioa egiten dio, berdin-berdin 30 edo 60 urte baditu ere”.

Zuriak neutro gara, eta gainerako guztiak, *beste*. Gizonak neutro dira, eta gainerakook, *beste*. Eta adin-kontuetan? Adin-kontuetan, helduak dira (gara?) neutro, eta gainerako guztiak, jakina, *beste*. Eta besteetan besteak, zaharrak: produktibitatearen hazkundera atergabea amets hezetzat daukan gizarte honetako lasta ustez pasibo hori. Enbarazua dira zaharrak, destorbua. “Zaharra da eta hil bedi, ez ditu balio lau zuri”, dio esaera zaharrak. Baina zer zahar eta zer zahar-ondo,

gaur egun zahar hitza bera tabu bilakatzeraino zabartu gara eta!: *heldu* eta *gazte* hitzak laudorio dira, bai, eta inori *zahar* esatea, aldiz, edukazio txarrekoa; *adineko* hitza erabili behar beti, edo *edadetu*. Are, *Hirugarren Mundu* izendapen supremazista asmatu genuen bezala asmatu dugu *hirugarren adin* eufemismo pozoitsu ere. Hirugarrena beti azkenputz.

Bestetutako kolektibo guztiak egiten den bezala, klizez ihartzen ditugu zaharrak, eta topikoz sinpletzen: ahultasunaren topikoa egotzen diegu, eta jakinduriarena ere bai, onkeriaz; ez balego bezala zahar indartsu eta kementsurik, edo zahar tontorik. Azken batean, homogeneousitatea da inori gizatasuna eta norbanakotasuna ezabatzeko modurik eraginkorrenetako bat. Gazte eta heldu gehienok, seguruenera, ia zipitzik ere ez dakigu zer den zaharra izatea, baina askojakin betetzen zaigu ahoa, “amonaren krocketak” gora eta “aitonaren jenioa” behera, idealizazioz zein displizentziaz. Ez zuen alferrik idatzi James Barriek (nahiz eta gehienek Oscar Wilderi egotzen dioten esaldia): “Ez naiz guztia jakiteko bezain gaztea”.

Carpe diem absolutuaren aroan gauden, orainak bizi gaitu, eta, hori dela kau-

sa edo hori dela ondorio, zahartzaroak *memento mori* baino ez digu ekartzen, antza, gogora: etorkizunik gabeko etorkizun beltza. Iraganari bizkarra emanda bizi omen gara, eta horregatik dabilta batzuk memoria historikoaren aldarria hedatu nahian, gogoan izan dezagun nondik gatozen, berriro egin ditzagun ondo eginak eta eragotz ditzagun hutseginak. Ahaztu, ordea, etorkizuna ahazten zaigu maizegi: etorkizunaren memoria falta zaigu, etorkizunerantzkoa; ondo bidean eta ezbeharrik ezean gizaki guztion patua den zahartzaro horretaz oroitzea. Eta, gure amnesia prospektiboan, hortxe dihardugu, betigazte zapuztu, *edadearen kontrako* ukenduak fabrikatzen eta kontsumitzen: geure buruaren kontrako kremak.

Ez geneukake sobran, beharbada, gogoan hartzea Simone de Beauvoirrek *La Vieillesse (Zahartzaroa)* saiakera maitatsuan idatzitako hitz hauek: “Gure bizitzaren zentzua auzitan dago zain dugun etorkizun horretan; ezin jakin nor garen ez baldin badakigu nor izango garen: gizon zahar horrengan, andre zahar horrengan, aurki dezagun geure burua haiengan”. Edo, beste modu batean esanda, *memento senescere*. Zahartu, eta besteri ere lasai zahartzen utzi. ●